

Reset zuzeneko arteen plataformaren lehendabiziko balorazioa, Espainiako Gobernuak iragarritako *itzulera* neurrien aurrean

Reset plataformaren ustez, Espainiako Gobernuak atzo iragarritako *itzulera* neurriak herritarren segurtasuna eta osasun publikoaren irizpideak kontuan hartuta hartu dira, eta, gainera, kultura aktibatze baliokidua. Alde horretatik, eta osasun arduradunek hartutako erabakiak direla kontuan hartuta, egindako ahalegina eskertzeaz gain gure elkartetik ez dugu zer esanik.

Hala ere, neurri horiek zuzeneko arteen sektorean ondorio ekonomikoak dituzte, espazioetako edukia mugatzearekin zerikusia dutenak. Ekimen pribatuko eragileentzat (aretoak, ekoizleak, musikariak, aktoreak, teknikariak, sortzaileak), edukiera % 30era eta % 50era mugatzea ekonomikoki ezinezkoa da.

Egoera honen aurrean, sektoreak baldintza berrietan lan egin behar du, ikuskizunak eta kontzertuak bideragarriak izan daitezten. Eta hori lortzeko, beharrezkoa da ekimen pribatuaren, erakunde publikoen eta ikuskizunak eskaintzen dituzten guneen (antzokiak, aretoak, auditorioak) lankidetzara, parametro berri horietara egokitzeko. Apirilaren 17an, hainbat elkarte profesionalak adierazi genuen bezala, edukiera murrizte horrekin sektoreak bizirik irautea ezinezkoa denez, erakunde publikoei eskatzen diegu kulturari zuzendutako laguntzak bideratzen jarrai dezatela, normaltasunera bidean itzulerari aurre egin ahal izateko.

Era berean, kezkatzekoa da nola eragiten dien itzulera horrek ezinbesteko ERTE-ei. Sektorearen iritziz gobernuak iragarritako fase guztiak kontuan hartuta mantendu egin behar baitira. Jardueraren osotasuna berreskuratu arte, egoera ezinbesteko arrazoi bezala hartzen jarraitzea eskatzen dugu, laneko, gizarteko eta zerga-arloko laguntza-neurriek indarrean jarrai dezaten.

Gobernuari zera eskatzen diogu: zuzeneko arteen sektorearekin biltzea *itzulera* fasean hartu beharreko neurriak elkarrekin adosteko.

RESET osatzen dute:

Adde Dantza (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte)

Artekale (Euskal Herriko Kale Arteen Elkarte)

Besteok (Arte Eszenikoen Enpresen Elkarte)

EAB (Euskal Aktoren Batasuna)

Eskena (Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarte)

EZE (Euskal Zirku Elkarte)

Musika Bulegoa (Euskal Herriko Musika Bulego Elkarte)

Informazio gehiago: reset@kulturabizian.org / 688 843 119 (Ruth Manzano)